



# Laneko Osasunaren Informazio Buletina

91 alea / 2023ko otsaila

## Berritasunak

### Plan de Salud Pública 2022-2025

*Sociedad justa. Vidas saludables*

#### Osasun Publikoaren 2022 Plana aurkeztu da parlamentuan.

Urtarrilaren 13an, Marian Nuin  
NOPLOIko zuzendari kudeatzaileak

#### Osasun Publikoaren 2022-2025eko Plana

aurkeztu zuen Nafarroako

Parlamentuan. Planak hainbat

jarduera-ardatz ditu, eta helburu du

Nafarroa estatuan aitzindari sendoa

izaten segitzea bai bizi-itxaropenari eta

bizi-kalitateari dagokienez. Laneko

Osasunaren arloan, laneko arriskuen

prebentzioaren programa da plan berrian sarturiko

programa gailena, zeharkakoa izanen baita, eta orobat dira nabarmentzekoak ezbehar-kopurua

murrizteko, minbizia prebenitzeko eta arrisku psikosozialei aurre egiteko programa espezifikoak ere.



#### Argibide gehiago

#### Izurriteak kontrolatzeko nekazaritza-lanetan laneko arriskuak prebenitzeko kanpaina.

NOPLOIk, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarekin lankidetzan, kanpaina bat jarriko du abian, izurriteak kontrolatzeko nekazaritza-lanetan aluminio fosfuroa eta magnesioa erabiltzearen ondoriozko intoxikazioak prebenitzeko. Tratamendu horiek oso arriskutsutzat jotzen dira, isurtzen duten gasa toxikoa delako. 2021ean, substantzia horiekin 222 tratamendu egin ziren Nafarroan, eta horregatik da hain garrantzitsua ekimen hau.



## Nabarmendua

---



**Prebentzioaren arloko prestakuntza-ekintzak, beste erakunde batzuekin lankidetzan.** Urtarrilean zehar, NOPLOIKOko teknikariek beste erakunde batzuekin lan egin dute laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza-ekintzak antolatzen eta garatzen. Alde batetik, NOPLOIren egiturari eta funtzioei buruzko prestakuntza-saio bat eman zitzaion **NUPeKo Laneko Arriskuen Prebentzioko Masterreko** ikasleei. Bestetik, **Forzaingoaren** argiketen prozedura operatiboei buruzko ikastaroan lagundu zen, lan-istripuen ikerketari buruzko modulu espezifiko batekin.

**Otsailak 4. Minbiziaren aurkako Munduko Eguna.** Otsailaren 4an **Minbiziaren aurkako Munduko Eguna** dela eta, NOPLOIk gogorarazten du jatorria lanean izan dezaketen minbiziak ikertu, detektatu eta prebenitu beharra dagoela. Helburu hori betetzeko bidean aurrera egiteko, **Laneko Osasunaren 2022-2025eko Ekintza Planean** laneko minbizia prebenitzeko programa berariazko bat sartu da. Agente kantzerigenoekiko esposizioari heltzea du helburu, horri loturiko arriskuak eta kalteak hobeki ezagutuz, baita haien kudeaketa hobetzea ere.



---

## Berriak

---

- [Navarra, a la cabeza en siniestralidad laboral: existe una mayor cultura de la declaración y un gran peso de la industria y la construcción](#)  
Cadena Ser
  - [Esparru berria laneko arrisku psikosozialak ebaluatu eta sailkatzeko](#)  
Eusko Jaurlaritza
  - [Recuperarse trabajando: los modelos europeos que fomentan la actividad laboral durante la baja por enfermedad](#)  
Diario de Navarra
  - [Un juez califica como accidente laboral el sufrido al desplazarse entre su vivienda familiar y la que ocupa por motivos laborales](#)  
La Voz de Galicia
-

- [Nafarroako Gobernuak "lan-ezbeharren egoera kezkarriaren aurrean" hausnarketa beharrezkoa ikusten du"](#)  
Nafarroako Parlamentua
- [El trabajador dejará de estar obligado a dar a su empresa una copia de su baja laboral desde abril](#)  
El País

## Argitalpen digitalak



**Baratzeaintzako lan-prozesu  
seguruaren gida**  
OSALAN



**Esnetarako behien  
ustiatze-gidako lan-prozesu  
seguruaren gida**  
OSALAN



**Los traidores espacios  
confinados**  
SEGURMANÍA



**Guía para la elaboración  
de un Plan de Trabajo  
Seguro y Saludable**  
IAPRL



**Amianto:  
un enemigo oculto**  
INSST



**Seguridad y Salud en  
el Trabajo. Nº 113**  
INSST

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektronikoa honetara [ispln.ufii@navarra.es](mailto:ispln.ufii@navarra.es)



### **ARGITARATZAILEA:**

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua  
(Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)

☎ 848 423 771

Edizio-formatua: Fitxategi elektronikoa.

2023ko otsaila

---